



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2015/2016 denboraldia

7 ZK.DUN ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Kadeteen Euskal Liga antolatuko du 2015/2016 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko duten klubak

Abetxuko A.D.C.; Alavés D.; Antiguó'ko K.E.; Athletic C.; Danok Bat C.; Eibar S.D.; Gernika S.D.; Getxo C.D.; Olarizu C.D.; Real Sociedad de Fútbol; Real Union C.; Romo F.C.; Santutxu F.C.; Sestao River C.; Tolosa C.F.; Zarautz K.E.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan, hogeita hamar jardunalditan, guztira egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 13, 20 y 27 de setiembre; urriaren 4, 11, 18 eta 25; azaroaren 1, 8, 15, 22 eta 29; abenduaren 6, 12 eta 20.

Bigarren itzulia: urtarrilaren 3, 10, 17, 24 eta 31; otsailaren 7, 14, eta 28; martxoaren 6, 13 eta 20; apirilaren 3, 10, 17 eta 24.

Partidak larunbatetara aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Sailkapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak jaitsiko dira lurralde ligetara.

Orobat, lurralde ligan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren amaiturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

Era berean sailkatutako lehenengo bostak, dagokien lurralde lehiaketetako txapeldunekin batera Lurralde Mailako Fasea Coca Cola Kopa jolastuko dute

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordeztu egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Arbitroak

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Batik bat Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

7. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Gorajotze Batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2015eko irailaren 1an.

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General